

Tolosaldea tabako-kerik eta zigarrokinik gabe

Parte hartzen duten erakundeak

Esi Tolosaldea, Tolosako Udala, Clínica Ntra. Sra. De la Asunción, Tolosaldeako Udalak eta Tolosaldea Garatzen, AECC, Tolosa-Goierriko Osasun Publikoko Eskualdea

Tabakoa, osasuna eta ingurumena

Gero eta jakinago daukagu zer-nolako intzidentzia duten ohitura batzuek gizakiaren osasunean. Zenbait ohiturek, hala nola jarduera fisikoa egiteak, dieta-motak, alkohola edateak edo tabakoa erretzeak, zerikusia dute patologia asko eta askoren intzidentzia handiago edo txikiagoarekin. Horietatik guztietatik, tabakoa da heriotza-kausa nabarmenki prebenigarriena gaur egunean.

Baina tabako-kontsumoa ez dago modu berean banatuta populazioan; gizarte mailako gradiente bat ageri du. Gizarte eta ekonomiaren aldetik ahulago diren kolektiboek gabezia material gehiago dute, faktore estresagarrien eragin handiagoa; eta horrek guztiak, nolabait, erretzera bultzatzen ditu. Ondorioz, are handiagoa da tabakoari loturiko arazoak edukitzeko arriskua, eta, beraz, areagotu egiten dira osasun mailako desberdintasunak ere.

2013ko EAEko Osasun Inkestaren arabera, Gipuzkoan, erretzaile da gizonezkoen % 27,7 eta emakumezkoen % 21. Gizonezkoen artean, pixka bat behera egin du kopuruak azken urteetan, baina emakumezkoen artean egonkor dirau 2002az geroztik, eta adin-sektore jakin batzuetan pixka bat igo ere egin dela esan daiteke.

Osasun-arazoak eragiteaz gain, ingurumenaren kalitateari ere erasaten dio tabakismoak. Zigarrokina lurrera botaz gero, edo ontzitik kanpo, zabor eta kutsadura bihurtzen da. Zigarroaren iragazkia zelulosa azetatoz egina dago, hots material ez-biodegradagarri, eta 18 hilabetetik 10 urtera bitartean behar izaten du desegiten, giroaren arabera. Euria egitean, zigarrokinak erraz joaten dira estolderiara, eta handik ibai eta itsasoetara. Zigarrokin batek zortzi litro ur kutsatu ditzake.

Edari-lata bat edo paperezko ontzi bat sekula lurrera botatzen ez duten batzuek, oro har, ez dute uste izaten zigarrokina botatzea zikinkeria denik. Kontzientziazio ezagatik eta hautsontzirik ez egoteagatik ere areagotzen da ingurumenaren kutsadura zigarrokinekin.

Helburu orokorra

Eskualdeko populazioa sentsibilizatzea, Tolosaldea tabako-kerik eta zigarrokinik gabekoa izatea lortzeko.

Helburu espezifikoak

1. Herritarren artean zabaltzea zer abantaila dituen tabakorik gabeko bizimoduak maila indibidualean eta inguru sozialean.
2. Tabako-mendekotasuna gainditzeko Osakidetzak Tolosaldeako osasun-zentroetan egiten dituen eskaintzak ezagutarazi eta sustatzea.
3. Gazteak erretzen ez hasteko prebentzio-neurriak baliatzea (kerik gabeko gelak).
4. Tolosaldeako biztanleei ulertaraztea zigarrokinek ez dutela balio, ez birziklatzeko, ez konposta egiteko.

Nori zuzendua den

Populazio osoa, oro har

Prozesuan esku hartu dezaketen eragileak

✓ **Udaleri eta erakunde mailan:**

- Tolosaldeako udalerriak
- Udaltzaingoa
- Ertzaintza
- Kiroldegia eta Gizarte Zerbitzuak
- Tolosaldeako Zaborren mankomunitatea
- Uraren Euskal Agentzia (URA) eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioa

✓ **Ikastetxe mailan**

- Ikastetxeak: ikasleak, IGE, irakasleak eta Berritzegune
- Lanbide heziketako ikastetxeak eta heziketa berezikoak
- Esperientzia-eskolak

✓ **Herri mailan**

- Udal elkarteak: jubilatuek, emakumeak, etorkinak...
- Elkarte gastronomikoak eta kirol-elkarteak
- Gazte-lonja eta -lokalak
- Minbiziaren aurkako elkarteak
- Ostalaritza eta Merkataritza, oro har
- Tabako-banatzaileak
- Tokiko komunikabideak
- Garraiobide publikoa: Renfe, Lurraldebus....

✓ **Osasun mailan**

- Tolosaldeako ESla eta Osasun Mentala
- Farmaziak, ortopediak, parafarmaziak, dentistak, Optikak, entzumen-zentroak...
- Medikuen eta analisi klinikoaren beste kontsulta batzuk
- Zaharren egoitzak, eguneko zentroak eta bestelakoak
- Fisioterapeutak, errehabilitazio-, masaje- eta estetika-zentroak

✓ **Lan-esparruan**

- Osalan
- Gainerako enpresak
- Mutuak eta Aseguruak
- Sindikatuak eta Patronala